

**BEGO OLEAGA ERDOIZA eta
ANTONIO ESCALANTE RUIZ**
Antimilitaristak:

*“Haize- kontra
ari gara,
baina haizeak
norabidea
aldatzen du”*

Garai erabakigarriak dira akaso antimilitarismoarentzako, Euskal Herrian zein munduan. Mugimenduak galdua du hamarkada batzuk atzerago izan zuen indar handia eta, aldiz, biderkatzen ari dira diskurtso, gatazka zein aurrekontu militarrek, eskuinean zein ezkerren barnean, gerra nuklearraren arriskua berpizteraino. Hori guztia irauli nahian ari dira Antimilitaristak EH plataforman batu diren Euskal Herri osoko talde antimilitaristak. Plataformak argitaratu berri duen liburuaz, egungo egoeraz eta etorkizuneko erronkez hitz egin dugu Bego Oleaga eta Antonio Escalanterekin. Emakumeak Gerraren Aurka taldeko kide da Oleaga, Gasteizkoak taldekoa Escalante, eta biak ari dira Antimilitaristak EH plataforman.

 **ZIGOR OLABARRIA OLEAGA**  **DOS POR DOS**

Bi urte inguru direla hasi ziren batzen Antimilitaristak EH plataforma osatzen duten talde antimilitaristak: Armiarma Talde Feminista Antimilitarista; Bake-Ekintza Antimilitarista; Bardenas libres; Bilboko KEM-MOC; Emakumeok Gerraren Aurka; Gasteizkoak; Gerrarik Ez Eibar; Jaizkibel militarrik gabe; Kakitzat; Gerra Hemen Hasten Da. Aurretik antolatatu zuten elkarrekin beste ekimenen bat, armagintzak, gerrak eta migrazioak duten lotura ikustarazi eta salatzeko “Eusko Label armak gerrarako” kanpaina kasu, eta sortutako “giro politak” bultzatu zituen pauso berriak ematera, azaldu du Escalantek. Plataformaren izaera eta lana definitzeko eztabaidan daude orain –horregatik ohartarazi dute Oleagak zein Escalantek ez dutela plataformaren izenean hitz egiten–, baina hausnarketa amaitu bitartean “zer edo zer praktikoa” egiteko nahia sortu zen: “Armagintza enpresa bat aztertzea erabaki genuen, armagintzaren argazki orokorrago bat emateko”. Hori da Gasteizkoak talde antimilitaristak egin eta plataformaren izenean argitaratu den liburuaren zioa.

Liburua “erreminta bikaina” dela dio Oleagak, SAPA enpresaren eta Aperribay familiaren historia eginez “sare mafioso eta klientelar oso baten” deskribapena egiten duelako. “Intrigazko nobela beltz” bezala irakurri daitekeela dio, eta lanaren hainbat bertute zerrendatu ditu: produkzio militarrek lanpostuak sortzen dituenaren mitoa eraisten duela, osasun edo medikuntza arloko enpresekin lotuz armagintzak egiten dituen zuriketa ariketak agerian uzten dituela, produkzio militarra zibilean birmoldatzeko alternatiba ematen duela, armagintzako beste euskal enpresa batzuk ezagutzeko “gosea” pizten duela... Eta, guztiaren gainetik, “gerra hemen hasten dela” frogatzen duela.

TXURI-URDINA ZURIGARRI

Liburuak ez du ikertzen eta ez dio aipamenik egiten Aperribay familiak futbolarekin duen harremanari, armagintzarekin lotura zuzena duten negozio eta gertaeretara mugatzen da. Escalantek ez du baztertu halere negozio loturak egotea bi esparruen artean: “Frogatu ditzakegun gauzak soilik argitaratu ditugu, baina zurrumurruak eta zurrumurruak baino gehiago ere baditugu, zenbait futbol talderen palko pribatueta gertatzen denaz”.

Kirola eta armagintza beste modu batera lotu zituen Patxi Azparren antimilitaristak liburuaren aurkezpen egunean, Donostiako Koldo Mitxelena liburutegian. Jendeak hiltzen dituzten armekin eta gerrarekin negozioa egiten duten Aperribayren moduko familiek “onarpen soziala” lortzeko “marketing” beharra dutela ziurtatu zuen, eta horretarako erabili duela familiak Reala. Jokin Aperribay da taldearen egungo presidentea, eta aurretik presidenteorde izan zen Joaquín Aperribay aita, Iñaki Alkizaren agintaldian (Jokinena anaia Ibon Aperribay San Sebastián Gipuzkoa Basket taldearen administrazio kontseiluko kide izan zen). Escalantek nabarmendu du “heriotzaren merkatarien” zuritze ariketak ohikoak direla, euskal armagintzaren beste enpresa bat jarri du adibide, Sener: “Hamarnaka urtez presidentea izan zena, Enrique Sendagorta, aldi beren Opus Deiren obra sozialaren finantzatzailea zen. Etika filosofiko kristauaz liburu bat idatzi zuen. Andres Sendagorta, egungo presidentea, ikasketa militarrik dituen,

Instituto de Empresa Familiar elkarte-ko Espainiako Estatu mailako presidentea da, hor agertzen da enpresa gizon eredugarri bezala”.

“Aperribay lotzen baduzu kirolarekin, futbolarekin, zeozer herrikoiarekin lotzen duzu”, dio Oleagak. “Nola pentsatuko duzu pertsona edo familia bera kapaz izango denik negozioa egiteko munduaren beste parte batean saraskiak egingo dituzten edo errefuxiatuak sortuko dituzten armak salduz?”. Kirola eta gerra aurkako bi mundu bezala irudikatzen dira askotan, “bakearen” aldeko ekimenak ugariak izaten dira, baita Realean ere. Urte honetako ekainean, urrunago joan gabe, *Gerrako eta futboleko oroitzapenak* hitzaldia antolatu zuen talde txuri-urdinak Meho Kodro futbolari ohi bosniarrekin, Ukrainako gerraren testuinguruan 90eko hamarkadako Balkanetako gerra gogoratuz. Hipokrisia horrekin “apurtu” beharra aldarrikatu du Oleagak: “Horrelako pertsona bat ezin da normaltasunez irribarretsu atera telebistan, kriminal bat da”.



